

Gernika-Lumoko udaletxean, 1992ko uztailaren 24an egin du Euskaltzaindiak hileroko batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira, J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea, A. Eguzkitza, B. Gandiaga eta X. Kintana, urgazleak, zegozkienetan.

F. Krutwig eta A. Labaien jaunek ezin etorria adierazi dute.

Zenbait zehaztasun eginik onartu da ekaineko batzar agiria

Ongietorria

Sergio Villa, Gernika-Lumoko alkateordearen hitzekin hasi da batzarrea. Alkatea kanpoan izanki, Udalaren izenean berak eman dio ongietorria Euskaltzaindiari. Atseginez ikusten du Villasante gernikarrari egiten zaion omenaldia eta "Bizkaiko Seme Bikain" izendatzeko proposamena Udalak aurkeztua diola Bizkaiko Diputazioari, esan du bidenabar, aintzakotzat hartzen duelarik euskaltzainburu ohiaren nortasun eta lan handia.

Euskaltzaindiak gogotik babesten du noski Gernika-Lumoko agintarien eskaria.

Organigrama

Aditegiak aurkeztutako gomendioetako organigrama dela-eta, J. Haritschelhar jaunak egin du Zuzendaritzan ikusitako aldakin baten proposamena. J.A. Arana Martijak tajututako laukia da eta bertan margo desberdinez eginkizunak sailkatu-rik agertzen dira. Hiru lanpostu berriren beharra ikusten du egileak: Iker arduraduna, langilego arduraduna eta mantenamenduko arduraduna.

P. Charrittonen ustez Jagon sailburua eta Sail honen eginkizunak itzalpean gelditzen dira. J. San Martinen ustez inoiz bezain beharrezkoa da gaur jagote

lana, bai Iparraldean eta Nafarroan, nahiz Euskal Komunitate Autonomoan, adibidez Araban.

Hiru lanpostu berri, bestalde, asko da eta tekniko on bati azterketa zehatza eta gidaritza eskatzea proposatu du.

P. Salaburuk bere aldetik, akademi gaietan arduradun horrek zerikusirik baduen galdetu du.

Idazkariari Araudiak egozten dion ardurua aipatuz, une honetan kargu honek dituen hutsune eta gabeziak aipatu ditu J.M. Satrustegik txosten batean. Aditegiaren ikuspegia zehatza da alor honetan, bere ustez, eta hark egindako organigrama oso osorik onartzea proposatzen du.

Honen arabera, egoitzaren mantenamendu beharrezkoa aintzat hartu eta administrazio lanak arintzen laguntzeko arduradun bat izendatzea aski dela uste du idazkariak. Pertsona horrek bete beharko lituzkeen eginkizun nagusiak ere aipatzen ditu txostenak.

Iker eta Jagon sailletako akademi lanetan ez luke inolako ardurarik izango, bestalde. Iker sailburuaren eta Jagon sailburuaren lana eta erantzunkizuna bizkortu behar lirateke, ordainduz noski, akademia mailako koordinaketa hobetzeko.

Egoitzako mantenamendua kontratuz egin daitekeela, dio B. Oihartzabalek.

A. Irigoienek dio Euskaltzaindia erakundea dela, ez enpresa bat. *Burokrazia* hitza aipatu da orduan. Hori dela-eta, Euskaltzaindia, erakundea izateaz gain, enpresa ere dela, esan du E. Knörrek. Eragilea behar dela, dio hitzez-hitz, ez euskaltzainen gainetik izanen den norbait.

Barnegai orokorrak

Zarauzko Udalaren eskariz, "XI. Xabier Lizardi Saria" literatur lehiaketaren epaimahairako ordezkari Jose Antonio Mujika izendatu da.

Argitarapen batzordeak *Iker 7* liburukiaren azala aldatzea proposatu du, Nazioarteko Dialektologia Biltzarreko iragarkia baliatuz. Astirik ezean irailean eztabaidatzeko utzi da.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren batzordeak bi bekadunen eskaria egin du datu-sarreraren lana bizkortzeko. Bi pertsona berri hauek urrian sar daitezke, bi hilabeteko ikastaroa egin ondoren 1993ko urtarrilean lanean hasteko. Deialdi publikoa egingo da eta batzordekideen esku uzten da oinarritzko baldintzen zehaztapena. Datu-sarrera ere aldatuko da. Bi proposamenak onartu dira, eskaria Zuzendaritzaren esku utzirik.

E. Egunkariak Administrazio kontseiluan parte hartzeko eskaintza luzatu dio Euskaltzaindiari. Alde batetik, ekintza pribatua denez, bertan egoteko eragozpena azaldu da. Bestetik, euskara hutsean egindako egunkari bakarra dela jakinik, ezin zaiola ezezko borobilik eman, aipatu da, baina agian bai bestelako partaidetzaren bat proposatu. Hurrengo batzarrerako utzi da gaia.

Bordeleko Unibertsitateak hitzarmen bat izenpetu du Euskaltzaindiarekin Jardunaldiak eta Biltzarrak elkarrekin antolatzeko. Eranskin baten bidez finkatuko dira, aldi bakoitzean, helburuak eta izenpetzaile bakoitzari dagokion diru kostuen kopurua.

1992ko diru laguntzen laukia aurkeztu du diruzainak, azken aldiko egoera ez dela aldatu aditzera emanez. Hartzekoen atzerapena da azpimarragarriena.

Datorren irailaren lehen egunetan Renon egitekoak diren IV. Onomastika Jardunaldien egitaraua banatu da gero.

Oihenarten IV. mendeurrena ospatzeko Maule eta Donapaleun irailaren 20tik 25era egingo den Euskaltzaindiaren XII. Biltzarra ere antolaturik dago eta egitaraua azken zehaztapen txiki batzuen zain geratu da.

Akademi gaiak

Euskara Batuko batzordeak *Guzti hau / Hau guztia* erabileren txostena aurkeztu du. X. Kintana eta F. Ondarraren oharrak jaso ditu batzordeak. Eztabaidatu ondoren, *hau guztia* (edo *guzia*) eta kidekoak honestu ditu Euskaltzaindiaren izenean batzarreak.

Eta besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

J. Haritschelhar
euskaltzainburua

J.M. Satrustegi
idazkaria